

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

6447

AGINDUA, 2021eko abenduaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko G4, G5 eta G6 sailkatutako landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko 2022ko ekitaldiko laguntzak, erakunde publikoei zuzenduak (Erein Publikoak).

Gure autonomia-erkidegoko landa-eremuak garatzea eta sustatzea da Landa Ingurunearen Garapenerako apirilaren 8ko 10/1998 Legearen helburu orokorretako bat. Hori lortzeko, beharrezkoa da administrazioek sustapen-politika eraginkorrak gauzatzea, eremu horiek benetan aktibatu ahal izateko.

Hori kontuan izanik, agindu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntza ekonomikoen deialdia egiten da 2022ko ekitaldirako, hain zuzen ere «Landa Eremuen Definizio Teknikoa» azterlanaren arabera G4, G5 eta G6 sailkatutako landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko (<https://www.euskadi.eus/eaeko-landa-eremuak-zehaztea-2015-2020/web01-a2lanits/eu/>).

Adierazitako helburu orokorraz gain, beste helburu zehatz batzuk ere lortu nahi dira: gizarteratzea sustatzea, pobrezia murriztea, landa-eremuen garapen ekonomikoa bultzatzea, baliabideen efizientzia sustatzea, eta, oro har, bizi-kalitatea hobetzea.

Kontuan hartuta diruz lagundu daitezkeen jarduerak tokian tokikoak direla, ez direla merkatu-ingurune batean egiten eta interes orokorrean oinarritu behar direla, agindu honetan jasotako laguntzak ez dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen araberako estatu-laguntzak, eta, beraz, ez zaie haien berri eman behar Europar Batasuneko zerbitzuei.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea, izaera eta esparru geografikoa.

Agindu honen xedea da 2022. urterako dirulaguntza deialdi bat egitea, G4, G5 eta G6 landatar-tasun-mailako landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko. Eremu horiek «Landa Eremuen Definizio Teknikoa» azterlanean daude zehaztuta, eta agindu honen I. eranskinean daude jasota.

Hala ere, agindu honetan oinarriturik, diruz lagundu ahal izango dira landa-eremuak ez diren eremuetan egindako inbertsioak, baldin eta esku-hartze eremuetako herritarrei zerbitzuak emateko badira. Kasu horietan, hitzarmenen bidez bermatuko da landa-eremuetako biztanleek aukera-berdintasunean baliatu ahal izatea sustatutako zerbitzua. Kasu horietan, zerbitzu ematen zaien udalerrien landatartasun-mailen batezbestekoa eginda kalkulatu da landatartasun-maila.

Bigarrena. – Laguntza-motak eta erakunde onuradunak.

1.– Laguntza hauen xedeak dira landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea hobetuko dituzten azpiegiturak eta ekipamenduak eskuratzen laguntzea, enplegua sortzea, edo deialdi honen xede diren landa-inguruneetan turismoa bultzatzea.

2.– Hauek izan daitezke laguntza hauen onuradun:

a) Toki-erakundeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, hau da:

I.– Udalerria.

II.– Kontzejuak eta udalerrarena baino eremu txikiagoko beste lurralde-erakundeak, lurralde bakoitzean dagoen foru-araudian eta toki-araubidearen gaineko oinarrizko legerian xedatutakoaren arabera.

III.– Udal-mankomunitateak.

IV.– Arabako lurralde historikoko kuadrillak.

V.– Beste zeinahi erakunde, baldin eta tokiko zenbait lurralde-erakunde biltzen baditu, dagokion izendapen bereziarekin, 2/2016 Legean eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

b) Toki-erakundeen sektore publikoa, a) apartatuko erakundeei dagokiena.

c) Landa Garapeneko Elkartek, baldin eta toki-erakundeekin lankidetzeta-hitzarmenak izenpezen badituzte esku-hartze eremu baten aldeko proiektuak martxan jartzeko.

Hirugarrena.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Laguntzaren xedea da inbertsioak sustatzea mota guztietako azpiegitura edo zerbitzuak sortu, hobetu edo handitzeko, jarduketa hauen esparruan:

a) Energia elektrikoa eta gasa hornitu eta kanalizatzearekin zerikusia duten oinarrizko azpiegiturak.

b) Ur-hornidura eta -saneamendurako oinarrizko azpiegiturak (azpiegitura berriak soilik lagunduko dira diruz, eta 300.000 euroko dirulaguntza izango da gehienez).

c) Energia berriztagarriekin eta energia aurreztearekin zerikusia duten azpiegiturak: energia berriztagarriak eta district heating sortu eta hornitzeko proiektuak.

d) Turismoari lotutako eskala txikiko azpiegiturak.

e) Biztanle-guneak egokitzearekin zerikusia duten azpiegiturak, biztanleak dituzten ingurune hondatuak lehengoratzeko eta haien hirigintza egokitzea xede dutenak: irisgarritasuna, lorategiak jartzea, argiteria eta hiri-altzariak.

f) Oinarrizko zerbitzuentzako proiektuak: eguneko zentroak eta pertsona nagusientzako erresidendiak, haurreskolak eta farmaziak/botikak.

g) Aisia, kultura eta kirolarekin zerikusia duten zerbitzuentzako proiektuak: kultur etxeak, liburutegiak, erabilera anitzeko zentroak, kirol-ekipamenduak eta/edo aisialdikoak.

h) Turismoarekin zerikusia duten zerbitzuentzako proiektuak: interpretazio zentroak/museoak eta turismo-bulegoak.

- i) Ekipamendu komunitarioetan irisgarritasunarekin zerikusia duten proiektuak.
- j) Hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten proiektuak.
- k) Enpresa-ekimenen egoitza izan daitezkeen industrialde txikiak eta eraikinak edo lokalak atontzeko proiektuak.

Laugarrena.– Diruz lagundutako jarduera azpikontratatzea.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua nartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, onuradunak azpikontratatu duela ulertuko da, dirulaguntzaren helburu den jardueraren exekuzio partziala edo osoa hirugarrenekin hitzartzen duenean. Hortik kanpo gelditzen dira diruz lagundutako jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko onuradunak egin behar dituen gastuak.

2.– Diruz lagundutako jardueraren % 100 azpikontratatu dezake onuradunak. Ezin izango da jarduerarik azpikontratatu, baldin eta, diruz lagundutako jardueraren kostua gehituta, inongo balio erantsirik ematen ez badio jardueraren edukiari. Hirugarrenekin azpikontrataturako jarduera dirulaguntzaren % 20tik gorakoa bada eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Kontratua idatziz egitea.
- b) Kontratua egiteko baimena aldez aurretik ematea erakunde emaileak.

Diruz lagundutako jarduerentzat jadanik beste administrazio publiko batek eman badu dirulaguntzarik, ulertu beharko da administrazio honek egiaztatu duela eskakizun hauek betetzen direla.

3.– Ezin da kontratua zatikatu, zenbatekoa murrizteko eta aurreko apartatuko baldintzak bete beharrik ez izateko.

4.– Kontratistek onuradunarekiko baino ez dituzte betebeharrak, zeinek osorik hartuko baitu bere gain diruz lagundutako jarduera egikaritzearen ardura.

5.– Aurreko apartatuan jasotakoa betetzeko, onuradunak izango dira hirugarrenekin itundutako diruz lagundu daitekeen jarduera betetzeko mugak betetzearen erantzuleak, hain zuzen dirulaguntzaren araudian ezarritako mugak diruz lagundu daitezkeen gastuen motari eta zenbatekoari dagokionez, eta kontratistek lege honen 46. artikuluan aurreikusitako lankidetzaren betebeharra bete beharko dute, muga horiek errespetatzen dituzten ala ez behar bezala egiaztatzea ahalbidetzeko.

6.– Alabaina, onuradunak ezin izango du honako hauekin itundu diruz lagundutako jarduera partzialki edo osorik betearaztea:

- a) Lege honen 13. artikuluan zehaztutako debekuetako bat duten pertsonak edo erakundeak.
- b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo erakundeak.
- c) Bitartekari edo aholkulariak, baldin eta operazioaren kostu osoaren ehuneko jakin gisa definitzen badira horiei ordaindu beharrekoak; non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunarekin loturaren bat daukaten pertsona fisikoak edo juridikoak, inguruabar hauek gertatzen direnean izan ezik:

1) Dirulaguntza ematen duen organoaren berariazko baimena eskuratu izana, aldez aurretik.

2) Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa ez izatea atxikitako entitateak egindako kostua baino handiagoa. Onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarritako baldintza beretan justifikatuta egiaztatuko da kostua.

e) Deialdi edo programa berean laguntza eskatu duten baina betekizunak ez betetzeagatik edo behar den balorazioa ez lortzeagatik laguntzarik gabe geratu diren pertsonak edo erakundeak.

Bosgarrena.– Diruz lagun daitezkeen kostuak.

1.– Diruz lagun daitezkeen kostutzat hartuko dira proiektuari lotutako inbertsio eta/edo gastuak, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera eginak. Data hori baino lehenagoko gastuak egonez gero, dirulaguntza ukatuko da, proiektua aurretik hasita dagoela iritzita.

2.– Oro har, hauek hartuko dira diruz lagun daitezkeen kostutzat.

a) Ondasun higiezinak eskuratzea, lursailak izan ezik.

b) Urbanizazio-lanak burutzea.

c) Eraikitze-lanak burutzea.

d) Zaharberritze- edo birgaitze-lanak burutzea.

e) Haiei lotutako beste azpiegitura batzuk.

f) Aurreko bost apartatuetan jasotako gastuei lotutako kostu orokorrak, adibidez: arkitektoen, ingeniarien eta aholkularien ordainsariak, diruz lagun daitezkeen kostuaren % 10eko gehieneko mugarekin.

g) Laguntza-eskaeraren xede den inbertsioari lotutako azterlanak, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen kostuaren % 10eko mugarekin.

h) Makineria eta ekipamendu berriak erostea eta haien finantza-errentamendua, ondasunaren merkatu-balioraino.

i) Jarduera berriari lotuta dauden bigarren eskuko ekipamenduak eta makineria erostea, baldin eta aurreko 5 urteetan beste laguntzarik jaso ez badute.

j) Tresneria.

k) Altzariak.

l) Informatika eta komunikaziorako ekipamendua, bai hardwarea bai softwarea.

m) Programa eta aplikazio informatikoak eta web-orri eta -plataformak eskuratu edo garatzeko egindako inbertsioak.

n) Patenteak, lizentziak, egile-eskubideak eta erregistratutako markak eskuratu edo erregistratzeko egindako inbertsioak: 20.000 euroko dirulaguntza, gehienez.

o) BEZ berreskurazina, BEZari buruzko Espainiako legeriaren arabera.

3.– Hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Mantentze-gastuak eta funtzionamenduko beste edozein gastu.

b) Etxebizitzak, ibilgailuak edo etxean erabiltzeko ondasunak.

c) Lursailak eskuratzea.

d) Langile propioen gastuak.

e) Interes zordunak, finantza-gastuak eta banku-bermearen gastuak.

f) Berandutze-interesak, errekarquak, hertsapen-isunak, zehapen administratibo eta penalak eta prozedura judizialen gastuak.

g) Zuzeneko zergak eta gizarte-aurreikuspeneko edozein araubidetan eginiko ekarpenak, laguntzaren onuradunari dagokionez.

h) Zeharkako zerga berreskuragarriak.

i) Ondasunak eta zerbitzuak erostearen ondoriozko faktura edo kontratuetan eginiko deskontuak, eta kontratu publiko edo pribatuetan kontratistak eginiko itzulketak edo ordainketak, aldaketen edo bestelako kausen ondorio direnak.

j) Ekipamendua eta makineria berritzeko edo soilik ordeztzeko inbertsioak, non eta erositako berria ez den aurrekoekiko desberdina erabiltzen duen teknologiaren zein errendimenduaren aldetik.

k) Finantza-errenta, baldin eta kontratuan zehazten ez bada operazioa amaitzean ondasuna erosi beharra dagoela. Bestalde, ez dira diruz lagunduko errentatzailearen marjina, interesak birfinantzatzeko kostuak, gastu orokorrak eta aseguramendu-gastuak.

4.– Kostuak neurritzea bermatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea beteko da. Kontratu txikien kasuan, gutxienez hiru eskaintza eskatuko ditu kontratazio-organoak, eta horiek espedientean sartuko dira kalitatea/prezioa harreman onena eskaintzen duen hautuaren justifikazioarekin batera. Hori posible ez bada, horren justifikazio arrazoitua txertatu beharko da.

Seigarrena.– Finantzaketa.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko aurrekontu orokorretan horretarako ezarrita dauden kredituetatik etorriko dira. Baliabide ekonomiko horiek, guztira, 4.000.000 eurokoak dira; horietatik, 2.800.000 euro 2022ko ekitaldirako ordainketa-kredituari dagozkio, eta, 1.200.000 euro, berriz, 2023ko ekitaldirako konpromiso-kredituari.

2.– Agindu honetako dirulaguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko Aurrekontu Orokorretan.

Zazpigarrena.– Onuradun izateko betekizunak.

Laguntzak eskatzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte pertsona juridiko eskatzaileek.

a) Agindu honen I. eranskinean zehaztuta dauden Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan burutzea diruz lagun daitezkeen jarduerak.

b) Egunean izatea foru-ogasunekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

c) Ordainduta izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

Zortzigarrena.– Eskabideak, agiriak eta aurkezteko epea.

1.– Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaio laguntza-eskabidea. Eskabide horretan sartuko dira 3. apartatuan aurreikusitako eredu normalizatua, agindu honen bidez onartua, eta 7. apartatuan eskatzen den dokumentazioa.

2. – Eskabideak bitarteko elektronikokoak erabiliz aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora sartuta; gaztelaniaz, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/1028208>; eta, euskaraz, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028208>

3.– Inprimaki-eredu normalizatua erabiliko da eskabideak aurkezteko, aipatutako helbide berean (gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1028208>; euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028208>).

4.– Eskaeraren osteko izapideak helbide hauetan egingo dira: <https://www.euskadi.eus/micarpeta> eta <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

5.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, artikulua hauetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikulua. Ildo horretan, eta agindu honen esparruan, ordezkaritza egiaztatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoa inskribatuta badago (<https://www.euskadi.eus/ordezkarrien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>). Ordezkaritza erregistro horretan inskribatuta ez badago, borondatezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatua betez (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlearitza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>) edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutara egiaztatu beharko da ordezkaritza.

6.– Informazio hau bilduko du eredu normalizatuak:

a) Identifikazio-datuak.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, agindu honetan eskatutako baldintzak betetzen direla eta aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla adierazteko.

c) Proiektuaren informazioa, agindu honen II. eranskineko ereduaren arabera egina. Bertan jasoko dira proiektuaren deskribapena eta baloratu behar diren puntu guztiak, eta informazio hori jasotzen duten akordioak eta ziurtagiriak ere erantsi beharko dira. Jasotako alderdiak bakarrik hartuko dira kontuan.

7.– Era beran, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Hirugarrenen alta-agiria, azken bost urteetan Eusko Jaurlaritzari beste laguntzarik eskatu ez zaion kasuetan, edo emandakoa aldatu nahi denean. Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu ahal izango da, dagokion zerbitzuaren bidez. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus>.

eus/hirugarrenaren-datuena-aldaketa/web01-tramite/eu/. Gainerako izapideetarako bezala, izapidetze elektronikora behartuta dauden pertsonak eta erakundeek hirugarrenaren alta lortzeko erabili beharko dute zerbitzu hori. Pertsona juridikoa bada, ahalordetze-eskritura, hala badagokio, eta erakundearen eratze-eskrituraren eta estatutuen kopia, dagokion erregistroan zigitatuta.

b) Eskatzailearen ordezkari izatearen egiaztatze-agiria, hala behar bada.

c) Proiektuak zerbitzu baten kudeaketa egin beharra badakar, Kudeaketa Plana aurkeztu beharko da, eta, horren barruan, gutxienez, puntu hauek azaldu beharko dira:

– Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua.

– Irekitzeko eta ixteko ordutegiak.

– Erabiltzaileek zerbitzua eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak.

d) Aurrekontuak eta/edo proformako faktura.

e) Aurrekontuen eta/edo fakturen laburpen-taula (webeko ereduaren arabera. Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1028208>; euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028208>).

f) Eraikuntza- edo berriztatze-lanak egin behar badira, proiektu tekniko bat behar den ala ez justifikatuko duen udal-ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Proiektu teknikorik, memoriarik edo balioztatutako zerrendarik –aurrekontua barne, egin beharreko gastua behar bezala xehakatuko duena– behar ez bada, argi eta garbi adierazi beharko da obra egiteko kostua eta hari dagokion BEZa.. Proiektu teknikoa, oinarritzko proiektua edo gauzatze-proiektua behar bada.

g) Eraikuntza- edo birgaitze-lanak egin behar badira, lan horiek gauzatzeko behar diren baimeak eta lizentziak aurkeztu beharko dira, edo, bestela, aldeko hirigintza-txostena.

h) Proiektua egikaritzeko den lursailen edo higiezinaren jabetza, usufuktua, errentamendua edo prekariora egiaztatze dokumentazioa.

i) Proiektua baloratzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein dokumentazio edo informazio.

8.– Zuzendaritza kudeatzailearen zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatuko dute onuradunak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta haren NAN/IFK ere. Hala ere, erakunde eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio uko egiaztatze horri, baina, orduan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Gainera, dirulaguntza-eskabidea aurkezteak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen diola Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari zuzenean eskura dezan beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazio guztia, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikularen 2. paragrafoan.

9.– Eskatzaileek administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badute eskatutako dokumentazioa, eta aldaketarik ez dela egin berriaz adierazten bada, ez dute aurkeztu beharko dokumentazio hori, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikularen 3. paragrafoarekin bat etorriz. Hala ere, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu dituzten adierazi beharko dute. Eskaera aurkeztuz gero, baimena emango da organo kudeatzaileak dokumentazio hori eskuratzeko, baina horrek ez du esan nahi baimena espresuki ukatu ezin denik. Hori egitekotan, adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

10.– Onuradun bakoitzeko, proiektu bakar bat lagunduko da diruz; hala ere, hori ez da eragozpena izango eskatzaile bakoitzak proiektu bat baino gehiago aurkezteko. Proiektu horietatik, betiere, balorazio-irizpideen arabera puntu gehien lortzen duena lagunduko da diruz.

11.– Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta 2022ko otsailaren 28an amaituko da. Eskabideak betekizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legaren 21. artikuluan ezarritako moduan emango den ebazpen baten bitartez.

12.– Laguntza jasotzeko eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

13.– Aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidezteko beharrezko irizitako bestelako argibide edota agiri osagarriak eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari.

Bederatzigarrena.– Laguntzak kudeatzea.

Landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzak kudeatuko ditu dekretu honetan aurreikusitako laguntzak, eta, halaber, diruz lagundutako jardueren gaineko kontrola eta segimendua egingo du. Horretarako, egoki irizten diren ikuskatzeak egin ahal izango ditu, betiere diruz lagundutako proiektuak modu egokian exekutatzeko direla egiaztatzearen, eta, hartarako, eskatzen zaien informazio eta dokumentazio oro eman beharko dute pertsona onuradunek.

Hamargarrena.– Balorazio-batzordea eta -irizpideak.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, eta honako kide hauek izango ditu: landa-garapenaren arloko eskumena duen zuzendaritzako hiru teknikari, zuzendaritza horretako titularrak ebazpen bidez izendatuak.

2.– Ebazpenean zehaztuko da zein izango den batzordeko idazkaria eta zein batzordeko presidentea.

3.– Balorazio-batzordeak, bere eginkizunak betetzen diharduela, eskatuko du Haziko adituak bere bileretara bertaratu daitezela. Batzordeak, era berean, arloko adituei aholkularitza emateko eska diezaieke beharrezko irizten dion guztietan.

4.– Honako taula honetako irizpideen arabera baloratuko dira proiektuak, eta, horretarako, Proiektua Baloratzeko Memorian bildutako datuak eta informazioa bakarrik hartuko dira aintzat, bai eta dokumentazio bidez frogatutakoak ere, hala dagokionean.

Irizpidea	Puntuazioa	Deskribapena	Oharrak
	Landatartasun-maila (10 puntu)	<ul style="list-style-type: none"> - G4: 10 puntu - G5: 8 puntu - G6: 6 puntu 	<p>Proiektuen eragin-eremuak (proiektua egiteak zuzenean onura ekartzen dion eremua) entitatea edo udalerrria gainditzen duenean: puntuazioa lortzeko, proiektuaren eragin-eremua osatzen duten entitateen eta/edo udalerrien puntuazioen batezbesteko aritmetikoa kalkulatu da. Batezbesteko horiek biribildu egingo dira: beherantz, baldin eta dezimala 5 baino txikiagoa bada, eta gorantz, 5 baino handiagoa bada.</p>
Eskualdea	Eskualdeko Landa Garapenerako Programara egokitze-maila (20 puntu)	<ul style="list-style-type: none"> - Eskualdeko Landa Garapenerako Programa zabalitzean urtero lehenetsitako azpiegituren eta zerbitzuen tipologiek bat datozen proiektuak: 15 puntu - Eskualdeko Landa Garapenerako Programa zabalitzean urtero lehenesten ez diren azpiegituren eta zerbitzuen beste tipologia batzuekin bat datozen proiektuak: 10 puntu - Eskualdeko Landa Garapenerako Programen zeharkako ardatzak: 5 puntu gehiago 	«Zeharkako ardatzetan» puntuak lortzeko, haietako bi jaso behar dira gutxienez
	Eremuaren garapen-maila, proiektuari dagokionez (10 puntu)	<p>PROIEKTU BERRIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez badago beste antzeko proiekturik: 8 puntu - Badira antzeko beste proiektu batzuk, baina oraindik ere gehiago sartzeko aukera dago: 4 puntu - Beharra eta/edo aukera aseta badaude: 0 puntu - Enplegua sortzen laguntzen badu: 2 puntu gehiago <p>HOBEKUNTZAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hobekuntza beharrezkoa bada zerbitzuaren jarraipena bermatzeko: 8 puntu - Hobekuntza nabarmena bada: 4 puntu - Hobekuntzak ez badu baldintzatzen zerbitzua bera: 0 puntu - Enplegua sortzen laguntzen badu: 2 puntu gehiago 	

Irizpidea	Puntuazioa	Deskribapena	Oharrak
Erakunde sustatzailea	Berme ekonomikoa (10 puntu)	- Proiektua egiteko aurrekontu-partida izatearen ziurtagiri bat dago, eskuragarri dagoen finantzaketa egiaztatzen duena 10 puntu - 5 puntu kenduko dira, aurretik egindako ez-betetzeengatik edo Erakunde Ordaintzailearen zordunen zerrendan egoteagatik	
	Proiektuaren exekuzio-maila (10 puntu)	- Exekutatua: 10 puntu - Hasia: 9 puntu - Lizitatua: 8 puntu - Udalbatzaren akordioa edo antzekoa dauka: 7 puntu	
Proiektua	Irismena (5 puntu)	- Proiektuak udalerrri edo entitate bati baino gehiagori ematen badio zerbitzu: 5 puntu - Proiektuak udalerrri edo entitate bakarrari ematen badio zerbitzu: 3 puntu	Tokiko, udaleko eta udalez gaindiko irismena, eta proiektua gauzatzeko akordio posibleak
	Bideragarritasun-plana (20 puntu)	- % 60ko finantzaketa: 20 puntu - % 30 eta % 60 arteko finantzaketa: 12 puntu - % 30eko finantzaketa: 6 puntu	Bideragarritasun tekniko-ekonomiko-finantzarioaren plana. Honako hauek osatzen duten finantzaketa: funts propioak, beste laguntzak batzuk, emandako maileguak...
	Eskatutako laguntzaren zenbatekoa (15 puntu)	- Eskatutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa, 50.000 euro: 15 puntu - Eskatutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa, 150.000 euro: 10 puntu - Eskatutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa, 500.000 euro: 7 puntu - Eskatutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa, 500.000 euro: 5 puntu	

5.– Proiektuek, hautatuak izateko, gutxienez 50 puntu lortu behar dituzte.

Hamaikagarrena.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Lortutako puntuazioaren arabera, honela gauzatu da proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntzaren ehunekoa:

Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %
100	60	86	53	72	46	58	38
99	59	85	52	71	45	57	37
98	59	84	52	70	45	56	36
97	58	83	51	69	44	55	35
96	58	82	51	68	44	54	34
95	57	81	50	67	43	53	33
94	57	80	50	66	43	52	32
93	56	79	49	65	42	51	31
92	56	78	49	64	42	50	30

Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %	Puntuak	Laguntzaren %
91	55	77	48	63	41		
90	55	76	48	62	41		
89	54	75	47	61	40		
88	54	74	47	60	40		
87	53	73	46	59	39		

2.– Azkenik egikaritutako zenbatekoa aintzat hartuta erabakiko da gainfinantzaketarik dagoen ala ez, eta dirulaguntza emateko aintzat hartutako aurrekontuaren zenbatekoa izango da haren muga.

Hamabigarrena.– Esleitzeko prozedura.

1.– Lehiaketa bidez esleituko dira agindu honetan araututako laguntzak, hala ezarrita baitago Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.1 artikuluan.

2.– Balorazio-batzordeak proiektuak aztertuko ditu, eta, aurreko ebazpen-ataleko irizpideei jarraituz, puntuak esleituko. Ondoren, zenbatekoak kalkulatuko ditu, lortutako puntuazioaren arabera.

3.– Gero, zerrenda bat prestatuko du, beheranzko hurrenkeran, jarduketa-proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera, eta hurrenkera horri jarraituz emango dira laguntzak, harik eta funtsak bukatu arte. Arau hori aplikatuz ateratzen den zenbatekoa laguntza-eskabidean adierazitako gehieneko zenbatekoa baino handiagoa bada, azken hori emango da.

4.– Laguntza esleitu eta hiru hileko epean emandako zenbatekoak gutxitzen badira edo dirulaguntza jasotzeko eskabideari uko egiten bazaio, zenbateko horiek kreditu faltagatik laguntzarik jaso ez duten eskabideei esleituko zaizkie, hurrenkera zorrotz gordeta, betiere Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testuategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan ezarritako mugen barruan.

5.– Proiektu bik edo gehiagok puntuazio bera lortzen badute, «Landatartasun-maila» handiena duena lehenetsiko da, eta, berdinketak badirau, «Eskualdeko Landa Garapenerako Programara egokitzea» irizpidean puntuazio handiena lortu duena.

Hamahirugarrena.– Ebazpena.

1.– Landa-garapenaren arloko zuzendariak ebatziko ditu eskabideak, Balorazio Batzordearen proposamena ikusirik. Ebazpen-proposamenarekin bat ez datorren erabakia hartzen badu, arrazoitu beharko du (izan ere, proposamen hori ez da loteslea). Hala ere, laguntzak emateko, kreditu egoki eta behar bestekoa egon beharko da.

2.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

a) Onartutako eskabideei dagokienez:

– Erakunde onuradunen izenak.

- Diruz lagundutako proiektua.
- Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa.
- Diruz lagundutako zenbatekoa, urtekotan banatuta.
- Aurreikusitako jarduerak egiteko epea.
- Onuradunari honako dokumentazio hau aurkezteko betebeharra ezartzen dion klausula bat: proiektua egiteko beharrezkoak diren lizentziak edo baimenak egiaztatuko dituen dokumentazioa.
- Zehapen-prozeduraren batean edo itzultze-prozeduraren batean egonez gero, laguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, hura amaitu egin beharko da. Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko gaitasungabetzea badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen badu, emandako laguntza baliogabetu egingo da, onuradun izateko debekua izateagatik.

b) Onartu ez diren eskabideei dagokienez:

- Erakunde eskatzaileen izenak.
- Eskabidea ez onartzeko arrazoiak.

3.– Agindu hau indarrean jarri eta gehienez sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena. Epe hori bukatu eta ebazpen berariazkorik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala ezartzen baita urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

4.– Lehia-konkurrentziako prozeduraren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat hartuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan b) apartatuko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, interesdun bakoitzari helaraziko zaio ebazpen osoa. Nolanahi ere, lehenengo egin den jakinarazpenaren data joko da jakinarazpen-datatzat.

5.– Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dio interesdunak landa-garapenaren arloan eskumena duen sailburuordeari, hilabete epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo edozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluekin bat etorritik.

Hamalagarrena.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Betebehar hauek izango dituzte agindu honetan araututako laguntzen erakunde onuradunek:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten laguntza eman izanaren jakinarazpena hartu eta hamabost egunean, onartu egiten dutela ulertuko da.

2.– Dirulaguntza zertarako eman den, xede horrexetarako erabiltzea.

3.– Diruz laguntzen den gastua egin behar dute, laguntza emateko ebazpenak eta, hala bada-gokio, laguntza luzatzeko ebazpenak xedatzen duen epean.

4.– Diruz lagundutako inbertsio eta gastuei 5 urtez eutsi behar diete, gutxienez, gauzatzen direnetik aurrera; epe horretan ezingo dira ez besterendu ez amortizatu, ez eta dirulaguntzen xedea ez den beste ezertarako erabili ere. Ondorio horietarako, eta ondasun higiezinak eraiki, eskuratu edo birgaitzen diren kasuan, onuradunak dirulaguntza ematen dion administrazio-ziurtagiria

aurkeztu beharko du dagokion jabetza-erregistroan. Erregistro horretan, agiri hori ikusita, jabaria erabiltzeko mugaren erregistro-idazpena egingo da, hipoteka-legeriarekin bat etorritz.

5.– Landa-garapenaren arloan eskumena duen sailari jakinarazi behar diote inbertsio osoa edo inbertsioren zati bat egin dutela, eta haren esku utzi behar dituzte diruz laguntzen diren inbertsioak eta gastuak egin dituztela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak.

6.– Landa-garapenaren arloan eskumena duen sailaren babesak dutela aipatu beharko dute, proiektua zabaltzeko egiten diren agirietan eta publizitatean. Aipamen hori Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburuan xedatutakoarekin bat etorritz sartuko da (https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/identidad_corporativa/eu_5611/adjuntos/MANUAL_ID_4PUBLICIDAD.PDF).

7.– Jasotako laguntzak zertarako erabili diren eta laguntzen helburuak bete diren fiskalizatzeko lanean dihardutela eskatzen duten informazio guztia eman beharko diete landa-garapenaren arloan eskumena duen sailari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

8.– Agindu honetako zortzigarren ebazpen-zatiak xedatzen duena eragotzi gabe, beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskatzen badizkiote administrazioen bati edo erakunde publiko edo pribaturen bati helburu bererako, landa-garapenaren arloan eskumena duen sailari jakinarazi behar diote horren berri, eta, hala badagokio, eman dizkietela ere jakinarazi behar diote, idazki bidez, beste dirulaguntza edo laguntza horiek eman dizkietela jakin eta hamabost egun naturaleko epean, eta, betiere, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen.

9.– Eskatzaileek jakinarazi behar dute diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, bai eta eskuratu duten ala ez.

10.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ekintzetan erabil baitaitezke. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetako bat, objektiboa zein subjektiboa, aldatuz gero, idatziz ematea horren berri landa-garapenaren arloan eskumena duen sailari. Jakinarazpen hori aldaketa horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen.

11.– Xedapen hauetan ezarritako betebeharrak betetzea: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua.

Hamabosgarrena.– Betearazpen-epeak.

1.– Proiektuak 2022ko ekitaldian hasi beharko dira, eta 2023ko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango dira. 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako proiektuak ez dira diruz lagunduko.

2.– Salbuespenez, diruz lagundutako jarduketan egin eta amaitzeko epea luzatzeko ebazpena eman ahal izango du landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzak, baldin eta erakunde onuradunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak gertatzen badira (behar bezala frogatu beharko dira) eta inbertsioaren eta/edo gastuaren mugaeguna amaitu baino 30 egun natural lehenago gutxienez idatzizko eskabidea egiten bada horretarako. Kasu horretan, dena den, epea ezin izango da izan hasieran emandakoa baino luzeagoa.

Hamaseigarrena.– Dirulaguntza ordaintzea eta justifikazio-agiriak.

1.– Dirulaguntza honelaxe ordainduko da:

a) % 40, dirulaguntzaren xedea den proiektua hasterakoan. Lehenengo ordainketa hori egiteko, erakunde onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzan: obraren kasuan, lehen ziurtapena eta faktura, eta, gainerako proiektuetan, lehen faktura.

b) % 30 obra-ziurtagiriak eta/edo fakturak aurkeztu direlarik, behar bezala onartuta, diruz lagundu daitekeen aurrekontu onetsiaren % 50eko edo hortik gorako zenbatekoagatik.

